


Aretxabaleta,
1994eko ekainak 16

Aretxabaleta

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.
ARETXABALETA



San Juan Bezpera: Gau Majikoa

- Hies-ekimenaren prentsaurrekoa
- Euskeraren eguna
- Hauteskundeak

3. Boteprontoan
Zer irudituko litzaizuke emakumeak tantaia igotzea?
4. Hamabostean behin
San Juan eguneko egitaraua
5. Hamabostean behin
Eskoriatza-Arrasate kroseko emaitzak
8. Hamabostean behin
Euskararen eguna
9. Hamabostean behin
Hauteskundeak
10. Erreportaia
San Juanak
14. Arlutz Saskibaloitxapelketa
15. Kontu Zaharrak
18. Hurretik
Itziar Garate
19. Agenda eta Aretxazoka

EKAINAREN 23a

Eguna bere penpe hartzean gauaren iluntasunak, Euskal Herrian entzungo dira arbasoen ohiartzunak, urtero legez abestu asmoz San Juan doinu ezagunak, su inguruan bilduko gara berriz ere euskaldunak.

Gero txopoa altxatzea ere ohitura da egundaino, hau ikustera jende ugari hurbiltzen da plazaraino, guk badakigu zutik jartzea ez dela erreza baino, aupa mutilak, animo eta lehenengoan goraino!

Amaia Agiriano

Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila
Zuzendaria: Inaxio Garro, **Erredakzio-kontseilua:** Nati Abasolo, Marta Madinabeitia, Iñigo San Juan, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelaiña. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Itxaro Zubillaga eta Agurtzane Elkoro **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, R. Velasco, J. Fuensanta, Loramendi K.E, Udala. **Inprimategia:** Eguzkigraf **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** 55378 / 94.

Europear hauteskundeak

Europear Parlamenturako hauteskundeak direla eta, zerbait idaztea eskatu didate **Aretxagazetak**ok. Idazkia astelehenerako eskatu dit Zuzendaritza Batzordeak, erreflexio egunerako hain justu, nere ustez horixe izaten baita, alderdi politikoentzako benetazko hausnarketarako eguna. "Ondorengo egunak" gogogorrrak izaten dira sarri, eta komenigarria izaten da aitzakiak bilatu edo estrategi berriak aldatzeko hausnarketa sakon bat egitea.

Kontuak kontu, hona hemen hainbat telebistatako debatetan gehien entzundako hitzak kanpainan honetan, hitz klabeak: desafioa, arriskua, gure interesak defendatu, batuketa politikoa, europear ejerzitoa, hiritartasun europearra, subiranotasuna, moneta bakarra, elkarlana... Alderdi politikoetako hautagaiek, betiko moduan, ederki asko burutu dute euren lana: elkarri kritikatu, tra-

pu zaharrak atera. Are gehiago gure Euskal Herri zatitu honetan, non elkarrekin lan egitea utopia hutsa besterik ez den.

Komunikabideak

Komunikabideetan ere hauteskundeek bere lekutxoia eduki dute, baina ez dut uste nik autonomikoei eduki dezaketen trazendentzia edo ohiartzuna eduki dutenik euskal komunikabideetan. Hauteskunde hauekin koinzidituz bestelako gertakizunik izan da eta komunikabideek hauen berri eman behar izan dute, batzutan dedikazio gehiegiz. Zalantzan nago esate baterako, **ETBn** ez ote dieten denbora gehiago dedikatu Athelicen hauteskundeetara, Europakoei baino.


Bestela, mundialeko futbolak (por zierto, nora joango zaigu datorren urtean **Andoni Zubizarreta** atxabaltarra?) eta **Indurain**en pedaladak Italiako Giroan

(adituek diotenez motelagoak ezkondu ondoren) denbora kendu digute, nabarmena gainera, kanpainari so egiteko.

Ez dut uste, atxabaltarrek bestelako entusiasmorekin jarraituko zutenik kanpaina hau, batez ere, kontutan hartuta Europako asuntxo hau urrun samar gelditzen zaigula. Azken batean **Aitor Irure**, **Koldo Azkoitia** edo **Iñaki Pierreges**, baten batzuk esatearren, ez zaizkigu Estrasburgora joango, Atxabaltan jarraituko dute euren lana ahalik eta ondoen bete nahian. % 45,3ko abstentzioaren zergatia Atxabaltan, horixe izan daiteke.

J. Marcos

TXILARRA



**ELIKADURA
BEREZIA**

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28

ARETXABALET



HAIZEA AKEITEGIA

Mifarte Kalea, Z/G
Tfnoa: 79 85 57



Atxabaltan San Juan bezperan ohizkoa den bezala, aurten ere, kinttoek tantaia jasoko dute

SAN JUANAK

Urtero moduan aurten ere, ekainaren 23-an San Juan eguna ospatuko dugu Atxabaltan. Arratsaldeko 7etatik aurrera ekintza ugari izango ditugu eta egun horretan ohizkoa den bezala gure kinttoek tantaia jasoko dute. Egitarauari errepaso bat egingo diogu:

Arratsaldeko 7etan: **Japoniar bonben jaurtiketa.**

Arratsaldeko 7.30etan: **Atxabaltako txistulariekin kalejira eta buruhaundiak.**

Arratsaldeko 8etan: **Loramendi Dantza Taldearen saioa herriko plazan.**

Gaueko 10etatik goizalderarte: **Aldaba taldearekin dan tzaldia, Herriko plazan.**

Gaueko 10.30etan: **San Juan Sua.**

Goizaldean, ohiturari jarraituz, **Santa Ageda Mutilek tantaia jasoko dute.**

Joseba, jaun eta jabe Albazeten

Joseba Larrinaga, Albazeten jokatu diren elbarrituaren mailako Espainiako txapelketetan, primeran ibili da. 5.000 metrotan 17'22" denbora eginez, urrezko domina lortu du. Beste horrenbeste 1.500 metrotan, hemen 4'26" denborarekin lehen postuan geratu da eta 800 metrotan 2'12" denboraz 3. postuaz jabetu da. Josebak emaitza ezin hobekak lortu ditu Albazete aldean. Dena dela, esan beharra dago Euskadiko taldearen nibela Albazetekoaz konparatu ezkereratuago dela. Baina, hala ere, Josebak benetako txapeldua dela argi eta garbi utzi digu.

Orain beste erronka garrantzitsua izango du Berlinen, uztailaren 16tik 31a bitartean. Bertan, bi lasterketetan hartuko du parte, 5.000 metrotan eta 10.000 metrotan hain zuzen ere. Lasterketa bi hauek oso garrantzitsuak dira eta egongo den maila ere haundia izango da. Zorionak egin duzun lanagatik eta zorte onena Berlin aldean.

ANGELINES
Autozerbitzua



Mitarte, 16

☎ 79 61 42

**IZOTZ
TABERNA**

Mitarte, 16

☎ 79 73 65

Novedades

MODAN
DAGOEN
GUZTIA



Iparragirre, 4
Tfnoa. 79 21 24



Eskoriatza-Arrasate krosa

Ekainaren 5ean jokatu zen Eskoriatza-Arrasate kroseko II. edizioa. Partehartzaileei dagokienez, 89 lagunek hartu zuten parte eta emaitzak honako hauek ditugu: sailkapen nagusiari dagokionez, lehen postuan Jose Apalanza sailkatu zen, 2. Ramon Jausoro atxabaltarra. 3. Santi Gonzalez, 4. Manu Hurtado eta 5. Jose Ramon Pedreñas. Mailaz maila: gizonezko beteranoetan lehen Enrike Kabiketa, 2. Jose Galan, 3. Cesar Diez, 4. Jesus Ezkibel, beteranoetan Pedro M Azkargorta atxabaltarra 7. postuan sailkatu zen. Gizonezko ju-

niorretan, azkarrena Aitor Atxa atxabaltarra izan zen, 2. Jon Gonzalez, 3. Eneko Galdos eta 4. Asier Agirre. Emakumeetan lehen Usoa Sorazu, 2. Rosi Talavera, 3. Eugenia Gonzalez. Emakumezko beteranoetan lehen saria Eugenia Gonzalezek berak jaso zuen, Lourdes Mariezkurrena bigarrena izan zen eta M. Jose Gil hirugarrena. Juniorretan atxabaltzar bat izan genuen jaun eta jabe, Amaia Gaztañaga hain zuzen ere.


Bestalde, aipatu behar da Atxabaltatik lasterketan 11 lagunek hartu zutela parte. Parte hartu eta bukatu.

□ Aurtengo Araba Euskaraz, Arabar Errioxako Lapuebla de Labarkan ospatuko da, ekainaren 19an, NON eta MUGAN lemapean. Ekintzak festa aurretik hasiko dira, bertan bertso afaria, pelota partiduak izango ditugu. Ekainaren 19an, barriz, txarangak, txistulariak, dantzak, bertsolariak, jolasak, musika taldeak, egun zoragarria pasatzeko denetik izango dugu.

□ Diputazioak 18 eta 29 urte bitartekoentzat udalekuak antolatu ditu. Astebeteko egonaldiak izango dira; Belaguan, Picos de European, Guaran, Iratin, Huescako Gallego eta Lizan. Udaleku hauetan besteak beste, parapentea, Kañoi jeitsierak, puenting-a, rappela egiteko aukera izango da. Prezioa 17.000 eta 29.000 pta. bitartekoak dira. Izena emateko epea ekainaren 25ean bukatuko da.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria

ZARAIA

GOIZEKO 5,30etatik
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA ANAIK


Hies-ekimenaren prentsaurrekoa

Hies-ekimenak urteko balorazioa egiteko eta aurrerantzean egingo dituen ekintza eta jardunaldien berri emateko prentsaurrekoa eman zuen. Orain arte Deba Bailaran Hiesaren inguruan egin duten lanaz baikor azaldu ziren. Honez gain, aurten kalte-tuei laguntzeko programa bat jarri dutela martxan aipatu zuten. Martizenero biltzen dira eta hiesaz jota daudenei laguntza ematea dute helburutzat. Beraz, laguntza programari buruz informazioa gura izan ezker, 792699 zenbakira dei egin dezakezue edo Hies ekimeneko bulegora joan zuzenean.

Laguntza-tailer honetan, besteak beste, gai hauek lantzen dituzte: medizina ofizialaren alternatibak (akupuntura, homeopatia, masaia, desblokeatze teknikak), arnasketa teknikak; (joga, auto masaia, digitopuntura). Orain barriz, Deba Garaiko herri desberdinetan jardunaldi batzuk egin gura dituzte, erakusketa, diapositiba emanaldi, hitzaldi eta pelikulez baliatuz. Bestalde, prentsa-

rrekoan zehar, Hies ekimenekoek bi puntu azpimarratu zituzten. Batetik, garbi utzi zuten Hiesa ez dela heroinomano, hemofiliko eta homosexualen kontua bakarrik, guztiok daukagu gaixotasun hori hartzeko arriskua eta datu moduan aipatu zuten, gaur egun heterosexualek kasuek asko egin dutela gora. Honen aurrean, prebentzioa derrigorrezkoa dela diote, prebentzioa eta informazioa.

Hori dela eta, Hiesaren inguruan informazioa ematen jarraituko dutela azpimarratu zituzten. Euren iritziz, Hies gaixotasuna guztiok normalizatu behar dugu eta orain duen dramatismoa kentzen ahalegindu, Hiesa azken finean beste gaixotasun bat besterik ez delako. Bestetik, Hies ekimenak lan egingo duen jendearen beharra duela ere esan zuten.



Hiesaren aurrean informazioa eta prebentzioa derrigorrezkoa da

AITZIBER NIÑO

Lezama Merkatal Zentrua
Tfnoa: 79 13 32

ITURGINTZA

Tfnoa: 79 07 34
79 31 87

JOSU URDAITEGIA

Mitarte, 1



Eguakotxean 17an, gabeko 10etan, **Atxabaltako Akordeoi Orkestrak kontzertua emango du Parrokian.** Eta domekan 19an, eguerdiko 12etan, **Atxabaltako Bandaren kontzertua entzuteko aukera izango dugu Durana kalean.** Atxabaltarrok, eta bereziki musikazaleok, aukera ezin hobea izango dugu, beraz, eguakotxa eta domekan.

Arantxa Andereñoari omenaldia

Arantxa Iza andereñoari omenaldia egingo diote Kurtzebarri eskolako ikasle eta irakasleek. Omenaldi-jaiak goizeko 11etan hasiko da Kurtzebarri eskolako aretoan eta eskolako maila guztietako ikasleek hartuko dute parte. Ikasleek bertsoak kantatuko dute, soinua jo, kantatuak, esketxak...etaabar. Jaialdia bukatzeko, eskola osoaren bertsoa kantatuko dute eta lora sorta bat emango diote Arantxa andereñoari. Bide batez esan beharra dago, 7. mailakoek aretoaren apainketa eta jaialdiaren aurkezpen lana beteko dutela. Arantxari eskola osoak kantatuko dion bertsoa, Amaia Agiriano bertsolariak egin du.

*Arantxa zuri begira dago
orain Kurtzebarri dana,
eskolaurrean izana zera
askoren bigarren ama
zapatak lotzen, mukiak kentzen,
haurtxo denak zuregana,
hainbat urtetan umore onez
jasan duzu gure zama,
bihotz-bihotzez eskertzen dugu
zuk burututako lana.*

□ Atxabaltako Hirugarren munduko taldeak Ruandako egoera gertutik ezagutzeko hitzaldia antolatu du ekainaren 28rako. Hitzalaria Juan Kruz Juaristi abadea izango da. Juan Kruzek 30 urte pasatu ditu Ruandan eta bertan bizi izandako esperientziaren gainean jardungo du. Hitzaldia udaletxeko ganbaran izango da arratsaldeko 7etan.

□ Hilabete itxita egon ondoren, barriro ere, squasha zabaldu egin dute. Goitik behera barriztu dute eta horretarako frontiseko horma bota egin dute. Izan ere, frontiseko horma hutsik zegoen, orain, barriz, adreilu trinkoa ipini diote. Honek trenkadaren pisua haunditu egingo du, ondorioz, squash-eko pilotak horman jotzen duenean ez da lehen bezala mugituko eta bote ona egin ahal izango du. Hauxe da gutxieenez adituek diotena, dena dela, praktikan zer gertatuko den ikusi beharko dugu ondorengo egunetan.

□ U.D.A taldeak batzar orokorra egingo du ekainaren 25ean, udaletxeko pleno aretoan izango da eguerdiko 12etan. Besteak beste, gai hauek jorratuko dituzte: aurrekontu aktaren onarpena, 93-94 denboraldiko kirol eta balantze ekonomikoa, 94-95ko batzorde berria, 94-95ko denboraldiko azalpen orokorra, eskari eta galderak.



Aurten ere Euskeraren eguna izango dugu ekainaren 18an.

Euskeraren eguna

Loramendi Kultur Elkartek, azkenengo urte hauetan bezala, **Euskeraren eguna** antolatuko du ekainaren 18rako. Euskara indartu eta bultzatzeko antolatu duten egun horretan, jai giroa izango da nagusi, horretarako hainbat ekintza prestatu dituztelarik.

Jaia arratsaldean hasiko da, eta zehatzago esateko arratsaldeko 5.30etan. Ordu horretan jaiari hasiera emateko, buruhaundiak eta bonba japoniarrak izango di-

tugu. 6,30etan, ostera, Sebastopoleko Titiriteroek "Giza piztia" antzezlan eskeiniko dute. Gabean herri afaria izango dugu Iturrigorri frontoian, eta jakina, herri osoa dago konbidatuta. Afal ostean jandakoa jeisten laguntzeko, Maixa eta Itziar trikitalariekin erromeria.

Antolatzaileek esan digutenez, afarira joan gura duenak Loramendi Kultur Elkarteko lokalean edo Arlutz tabernan eman dezake izena eta bide batez, afarira joateko txartela hartu.

UEEra doazenentzako dirulaguntzak

Uztailaren 18tik 30era bitartean, Iruñean Udako Euskal Unibertsitateak antolatu dituen ikastaroren batera doazen Atxabaltarrei, dirulaguntza emango die Aretxabaletako Udalak.

Dirulaguntza jasotzeko eskubidea langabezian direnek eta ikasleek izango dute bakarrik. Ordainduko zaien diru-kopurua gehienez matrikulazio kostuaren berdina izango da.

Dirulaguntzak lortzeko eska-riak, uztailean egin ahal izango dira, beti ere, eskabide garaian matrikularen ordainagiria eta ikastaroko partaidearen lan egoera adierazi dezakeen agiria agertuz.

Atxabaltako Udalak, bide batez, herritar guztiak animatzen ditu Udal Eusko Unibertsitateko ikastaro hauetan parte hartzera.

Bestalde, eta norbaitek ikastaro hauei buruz informazio gehiago nahi izanez gero, Udaltxean eskatu dezake.

GUREA

TABERNA
JATETXEA

Durana Kalea
Tfnua: 79 20 64



MAPFRE

Aseguroak

Errekaabarren, 3
Tfnua: 77 11 76

MATIKUA

Taberna

Azatza auzoa
☎ 79 16 68
ARETXABALETA







Domekan Europako hauteskudeak izan genituen. Hauteskunde hauek ez dira oso zalapartatsuak izan eta Europako legebiltzarrean izango ditugun diputatuak aukeratzeko balio izan dute. Atxabaltako hauteskunde egunean lasaitasuna izan zen nagusi eta beste urte batzutan baino jende gutxiago hurbildu zen mahaietara, euren botua emateko. Absentzio kopurua %45'38koa izan da. Alderdiz alderdi, gainbegirada bat eman ezker, hauteskundeetako irabazlea HB izan dela esan dezakegu, dena dela, 89ko hauteskundeetako datuez konpa-

ra ezker, 44 botu galdu dituela esan genezake. Bigarrena EAJ gelditu da, 552 boturekin, aurrekoetan baino 67 botu gehiago lortuz. 3. EA dago, 454 boturekin, aurrekoetatik 339 botu galdu ditu. 4. PSOE, 444 boturekin, 89ko hauteskundeak baino 34 botu gehiago. 5. PP dugu, 175 boturekin, alderdi honen igoera aipatzeko datua da eta baita IUak izandakoa ere, 155 botu lortuz.







Atxabaltan 7 mahai izan ziren, eta beheko koadroan mahai bakoitzean lortutakoa ikus dezakezue. Mahaiak kaleka banatzen dira. 1A; Bedarreta, Elkano,

Guridi, Iparragirre, Larrin plaza, Murubide, Otalora, Santa Kurtz eta Sarasate. Abizenak alfabetikoki hartuta Atik Kra. 1B Ltik Zra-ino. 2A; Andra Mari, Basabe, Durana, Errekabarren, Geltoki Plaza, Herriko plaza, Lausita eta Mitarte kaleak. Abizenak Atik Kra. 2B Ltik Zra bitartekoak. 3A; Araba Ibilbidea, Aralar Kalea, Basabe Poligonoa, Bizkaia, Gipuzkoa Plaza, Gorbea, Loramen-di Nafarroa eta Zاراia. Abizenak Atik Krakoak. 3B Ktik Zra bitartekoak. Eta azkenik, 4. mahaiari auzoetakoak eta Solohandi eta Bainuetxeoak.

1994ko Europear hauteskundeko emaitzak

	 HERRI BATASUNA	 EAJ PNV	 Eusko Alkartasuna		 PP	 IU
1 A	133	89	69	72	17	33
1 B	90	188	67	77	28	15
2 A	159	122	99	64	47	26
2 B	107	68	63	51	42	38
3 A	136	73	69	95	15	18
3 B	93	64	55	67	18	19
4	107	52	32	24	4	6
DENERA	825	552	454	444	175	155

1989ko Europear hauteskundeko emaitzak

	 HERRI BATASUNA	 EAJ PNV	 Eusko Alkartasuna		 PP	 IU
DENERA	869	484	793	410	21	42

San Juan gau bezperan, tantaia



Tantaia, gora jasotzen ari diren lehenengo uneak

Hurrengo hilabetetan soldaduzkara joan behar diren kinttoek jasotzen dute tantaia, San Juan bezpera gauean. San Juan jaiak oso herrikoiak izaten dira eta badituzte bere berezitasunak. Ohitura horiek, batez ere, baserrietan gorde dira, eta San Juanetako ohiturak mantentzen saiatu dira herritarrei esker.

Betidanik jai haundia izaten zen San Juan eguna. Orain urte asko direla, San Juanen martxa entzundakoan, lana itxi eta plazara jeisten ziren.

San Juan suaren ondoren tantaia jasotzeko ordua dator. Orain herriko plazan ipintzen den tantaia, lehen frontoi osteko zelai batean edo eliza aurrean ipintzen zen. Usadio honek gerran geldialdi bat izan zuen, eta 1944ean barriro hasi ziren. Tantaia

ez dauka zergatik txopua izan behar, kontua da luzea eta zuzena izatea, eta gainera harrapatua izaten da. Lehen gainera, kinttoak izan ezik, edozein herritar joaten zen kinttoei tantaia ekartzen laguntzera eta gainera komedia ederrak izaten ziren nola ekarri, asko pisatzen baitzuen txopuak. Tantaiaren puntan aza, kipula, letxuga eta berakatza ipintzen zaizkio.

Lehen San Pedro bezperan kentzen zen tantaia, baina orain ez da horrela egiten.

Guzti hau jakin guran; jasotzeko prozesua, ze tresna erabiltzen diren,... urteetan tantaia igotzen laguntzen duen Jesus Aldairekin egon gara berbetan. Baita, tantaia orain dela urte batzuk igo zuten Juanito Urreta eta Alfredo Meaberekin ere.

ALFREDO MEABE (Langilea)



- **Orain dela zenbat urte jaso zenuen?**
- Orain dela hamabi urte.
- **Nora joan zineten tantaia hartzera?**
- Bainuetxe parera joan ginen. Gainera uga-zabak ez zigun botatzen uzten, eta gu "txulo" jarri ginen eta azkenean, asko kostata baina bota genuen.

Txopua zulo batean sartuta gelditu zitzaigun eta handik ateratzeko soka batzuren laguntza behar izan genuen. Eta ekarri, ez naiz ondo gogoratzen, baina uste dut Egilorreko gurdian ekarri genuela. Baina, gogoan daukat baita, soken laguntzarekin arrastaka ekarri genuela. Beraz, ez nago zihur nola ekarri genuen.

- **Ze lekutan ipini zenuten?**

• Lehenengo urtez plazan ipini genuen. Bero, aurretik plazan jartzen zen, baina gero lehen-go taxi paradara pasatu zuten. Aurreko kintakoek jarri zuten azkenengo aldiz eliza aurrean, ez zuten jaso, grua baten laguntza behar izan zuten. Kriston txopua zen eta ezin izan zuten jaso. Guk berriz, kostata baina lehenean jaso genuen.

- **Tantaia igo ondoren, zer?**

• Orain ikastola dagoen tokian, banatu genuen gaztaia, ogia eta ardoa. Honekin bukatu eta Orlira.

JUANITO URRETA (Jubilatua)



- **Orain dela zenbat urte jaso zenuen?**
- 1944an jaso nuen. Orduan ere San Juan bezpera polita izaten zen. Plazan soinua, pasakallea, ... egoten zen eta gero txopua.

Gerra aurrean gogoratzen naiz, baina ostean hutsune bat egon zen. Hutsune horren ostean, geuk jaso genuen txopua. Ez zen txopua, altz itsusi bat ekarri genuen presatik. Eta horixe ipini genuen, plaza azpian dagoen mugarri parean. Guk zulo barik eta ezer barik ipini genuen, guk lotuta ipini genuen. Hurrengo urtean, formal eta itxuroso hasi ziren.

- **Zenbat kintto izaten zineten?**

• 12-13. Gu kintto 25 ginen, baina ipintzera 12-13 joan ginen, gure tantaia ipintzeko ez zen jende gehiago behar. Gainera lehen denok joaten ginen kinttoei laguntzera. Lehenengo begiratu egiten zen non zegoen txopo onena. Eskailerak Benito mamonean hartzen ziren, Laminazioan palankak, ... Guk ez, gabeen pentsatu eta hurrengoko egunean presara joan eta altz zahar bat ipini genuen. Gero gauzak ondo egiten hasi ziren, hori bai, betik txopua harrapatuta.

- **Tantaia igo eta gero zer egiten zenuten?**

• Ardoa edan, ogia eta gaztaia jan, eta txopuari txiza egin. Ondoren dantzan egin eta etxera. Jai polita izaten zen.

Urteak pasatu dira Jesus Aldai, bere anaia, Otalazpi eta Ursabal moduko gizonak, tantaia igo behar den unean, laguntzen hasi zirenetik. Herrian, "Inginieru" izenarekin ezagutzen zaie. Euren lana ez da bromazkoa, eta Jesus Aldaik esan digunez tantaia igotzeko momentuan, urteetan lagundu izan arren, txarto pasatzen dute.



Tantaia zulora sartzeko azken prestaketetan

"Tantaia igoten jakin egin behar da"

• **Zenbat urte daroazu San Juan gabea, tantaia igoten laguntzen?**

• Urte asko daroat. Iaz ez nuen lagundu, eurek bakarrik egitea gura zuten.

• **Tantaia igotzeak zailtasun handia dauka?**

• Jakin egin behar da, sokarekin nora tiratu, azpiko zuloan ondo sartu, ...

• **Kontatu iezaiguzu tantaia igoteko prozesua?**

• Lehenengo, txopua lurretik jaso behar da kinttoen indarrak baliotuz. Baina lehenengo lehenengo, tantaia ondo gertatu behar da. Plaza erdian, Udaletxeak eginitako zulo bat egoten da eta tantaia ondo gertatu behar da, zulo hartan sartzeko. Hemen akatsen bat eduki ez gero, oso zaila izaten da igotea.

Iaz zuloan ondo sartzeko metodo barri bat asmatu zuten, izugarritzko abantaila izan zen, bes-

tela urtero urtero bi pertsonak, palanka batzuen laguntzaz zulo parean egon behar izaten ziren tantaia ondo bideratzeko. Oso arriskutsua da gainera tantai azpian dagoenarentzat.

Zuloan ondo preparatu ondoren, lehenengo pausoa lurretik jasotzea izaten da, eta poliki poliki "urkilen" laguntzaz gora igotzen da. Lehen urkilen ordez, eskailerak erabiltzen ziren eta gainera egurrezkoak. Eskailerak ipini, eta zaharrak izaten baziren, tantaia ia ia jasota zegoela apurtzen hasten ziren. Momentu hau azpian zegoenentzat beldurgarria izaten zen. Eskailera ondo zegoela pentsatuta joaten zinen eta gehienetan defektoren bat edukitzen zuten, orain bai ondo urkilekin.

Tantaia nahiko goian dagoenean soken laguntza behar da, tantaiaren direkzioa mantentzeko. Soka bi egon beharrean, hiru

izanez gero askoz hobea. Hirugarren hau tantaiaren direkzioa zaintzeko izaten da eta nahiko goian dagoenean, indarrez laguntzeko. Bestela bi soka egon behar dira alboetan, tantaiaren direkzioa zaintzeko bakarrik. Jende askok pentzatzten du soka hauek tantaia tiratzeko direla. Jaso bakarrik kinttoen indarrak eta urkilen laguntzaz egiten da.

• **Igartzen da desberdintasuna, txopua edo pinua izan, igotzeko momentuan?**

• Kriston aldeago. Txopu gutxi dago, eta jendeak zelan txopua ekarri behar zen, kristoren txopuan ekartzen zituzten; pisu handiz eta zakarrak gainera. Txopua ekarri bai, baina gero jaso... Iaz adibidez kristoren pinu polita ekarri zuten. Askoz zamurragoak dira igotzeko. Nik uste dut, nahiz eta ohiturak txopua eskatu, igotzeko orduan askoz hobeto dela pinua.

Arlutz saskibaloitxapelketa bukatzen hasia dugu. 2 ihardunaldi falta dira bakarrik eta sailkapenaren buruan Fatxus taldea gogordabilela ematen du.

Finalerdietarako lehenengo 4rak sailkatuko dira, eta borroka gogorra agertzen zaigula adierazi behar da 5 talderen artean. Azkenengo ihardunaldira arte ez da jakingo zeintzuek jokatuko duten finalerdiak; Las Berrugas,



Lexe Gurelefa eta Handry daudelako 6 punturekin. taldeak zaila dute, azken

Arlutz saskibaloitxapelketa

Ihardunaldiak

8. IHARDUNALDIA

D.D.K - Aker
Esguince - Lleno por favor
Handry & Flody - Letxe Gurelefa
Salva not dead - Las Berrugas de...

9. IHARDUNALDIA

Esguince - Las Berrugas de...
D.D.K - Letxe Gurelefa
Fatxus - Handry & Flody
Aker - Lleno por favor

Sailkapena

FATXUS AND THE OTHERS	13
ESGUINCE	11
LLENO POR FAVOR	11
AKER	10
SALVA NOT DEAD	9
D.D.K	8
HANDRY & FLODY	6
LAS BERRUGAS DE...	6
LEXE GURELEFA	6

ARLUTZ TABERNA

Mitarte, 16 ARETXABALETA Tfnoa: 79 32 34

Preferente mailako UDA taldeak bukatu du denboraldia, beraz, balorazioa eta errepasoa egiteko ordua iritsi zaigu. Horrela bada, jokaturako partidu guztietan sartu dituzten golak, ikusitako txartelak eta horrelako kuriositateen berri jakingo dugu ondorengo lefroetan.



UDA taldea datorren denboraldiari begira

Preferente mailako UDA taldeak bukatu du, dagoeneko, denboraldia. Jesus Mari Etxebarriaren gidaritzapean, 21 jokalaririk ibili dira eta minuturen bat guztiek jokatu dute. Aurten UDAk 9 milioi eta 250 mila ptzko aurrekontua izan du, baina zehaztu behar da, diru kopuru hori sekzio guztientzako izan dela: futbola, pilota eta mendia. Preferente mailari gainbegirada bat eman eta gero, datuak hauek ditugu:

Neurketak

38 neurketa jokatu ondoren, 6. postuan geratu da Real Union taldearekin parekatuta, talde biek 41 puntu eta 3 positibo lortu dituzte. UDArentzat aurtengo denboraldia nahiko irregularra izan da, ondo hasi ondoren, denboraldi erdikaldean une larriak ezagutu zituzten eta partiduak ezin irabaziz ibili ziren. Gero azken neurketetan, barriz ere, maila eman duten arren, beharbada goiko pos-

tuetan sartzeko beranduegi erreakzionatu zuten. Beraz, 3. mailara igotzeko hurrengo denboraldi arte itxaron beharko dugu.

Golak

Esanak esan, aurtengoari errepaso bat emanez esan genezake UDAk 38 partiduetatik 14 irabazi dituela, 13 berdindu eta 11 galdu. Golez gero, 45 sartu ditu denboraldian zehar eta 36 sartu dizkio. Gol gehien sartu dituen jokalaria Gorka izan da 11 golekin, Aranak 7 lortu ditu, Jon Anderrek 4, Agirre 3 eta Ernestok beste 3 gol. UDAk gol gehien Munibe taldearen kontra sartu ditu; emaitza Munibe 0 UDA 5 izan zen. Bestalde, Euskalduna taldearen kontra jipoi haundiena jaso du, Ibarrran jokatu zen neurketa eta UDAk (3-5) galdu zuen.

Txartelak

Txartelei dagokienez, UDAk guztira 93 txartel ikusi ditu eta laruek zein gorriak banatu ezke-

ro, 91 laru atara dizkio eta 2 gorri. Gorri zuzena ikusi duten jokalariek Imanol atezaina eta Jabi izan dira. Hala ere, txartel gehien ikusi dituen jokalaria Gorka izan da, 13 atara dizkio, jarraian Vales dator 12 txartelekin, Ikerrek 11 ikusi ditu, Arriolak 10 eta Jon Anderrek 9. Partiduak jokatzen ibili direnen artean txartel gutxien Xabik ikusi du, bakarra jasoz.

Aurtengoa akabo

Denboraldiari benetako bukaera emateko, afaria izan zuten Matikun joan zen astean. Bertan bi sari banatu ziren. Lehena denboraldiko jokalaririk erregularrenak jaso zuen, eta aurten kopa Aranarentzat izan da. Beste sariak jokalaririk nabarmenena saritzen zuen eta Arriola izan zen aukeratua.

Esanak esan, bukatu da aurtengo denboraldia eta datorrena arte itxaron beharko dugu.



G

izakion harremanak ez dira beti gozoak izaten. Baina bai eskeintzen dutela edertasunaren bideetako bat: maitasuna. Argazkiko bikoteak orain dela mende erdi bat 50 urte sinatu zuen beraien arteko maitasun konpromezua. **Donato Urrutia** eta **Dolores Zubizarreta** Apotzagako San Migel elizan ezkondu ziren 1994ko Ekainaren 10ean. Biak apotzarrak direnez, Donato, Arrua baserrikoa, eta Dolores, Zaharra Txikikoa, non hobe?

Dirudienez oraindik ez zen somatzen Marko Polo sindromerik, eta eztaibidaian Zaragozaraino joan ziren.

Ekainaren 10ean, izan ere aurreko astean, euren urrezko eztaiak ospatu zituzten. Zorionak.

Ane L. De Uralde Urrutia

Hau teskundera!



J.J. Aretxaga

Pasatu dira hauteskundeak. Atxabalta ez dago joera nagusien linean. Asko botatzera joan barik geratu ziren, hori bai, beste lekuetako moduan. Derrigor eskolara joan beharra izan zutenak **Luis Idigoras, Francisco Javier Mulas, Jose Mari Iturbe, Alfredo Meabe, Juan Anduaga, Marcial Perez** aita eta **Maria Concepción Muñoz** izan ziren. Horreixek izan ziren mahaietako lehendakariak. Eskolan izan ziren bozketak, baina lehenago eskolan beste bozketa batzuk ere egin ziren. Eskola Kontseilurako ordezkariak aukeratzeko. Dozena bat pertsona aukeratu ziren, kanpainarik egin barik.

Barri onak be badaude. Atxabaltako industrialdean dagoen **Diara** diseinu enpresak, **Century** modeluko autobusa diseinatu zuen. Diseinatutako autobus hori Ormaiztegiko Irizar kooperatibak egin zuen. Ba autobus horri Inglateran urteko automobilaren saria emun diote. Dibujaute onak dauzkagu industrialde horretan. Beste barri on bat. Loramendi Elkarteak

badauka lokal barria. Aspaldi geratu zitzaizen txiki lehengoa. Azkenean lortu dute itxurazkoa eta leku onean: **Pagaldaixena**. Jatetxe izandakoa herriko kultura eta euskararen zentro bihurtuko da.

Mireia Uribetxebarria Indiara doa, bi hilabeterako. Hirugarren Munduko Taldean dabil eta ea Aretxabaleta-Unai Proiektuko barriak ekarten dizkigun. **Kepa Oleden**, inora joan barik, lan batetik bestera aldatu da. Lehen El Mundo egunkariko korrespontsala izan zen eta orain El Diario Vasco-ko Arrasateko korrespontsala izango da.

Pala Txapelketak baditu bere finalistak. Alde batetik **Inaxio Garro** eta **Koldo Azkoitia**, eta bestetik **Mikel Uribetxebarria Barrena** eta **Maritxalar**. Noizko Eskuzko Txapelketa Atxabaltan... Baina kiroletan norbait aipatu behar bada, hori **Joseba Larrinaga** da. Albazeteraino joan eta hiru sarirekin etorri zen. Espainiako Elbarrituen Txapelketan 5.000 eta 1.500 metroan urrezko domina jaso zuen eta 800 metroan hirugarren postua.

Domekan **Araba Euskaraz** izango da. Aurten non eta mugan izango da: Lapuebla de Labarkan, Ebroren ertz-ertzean. Loramendik autobusak antolatu ditu hara joateko. Azkar ibili apuntetako, Arlutzen eta Pagaldaixenean.

Saria: 7.000 pztako materiala eros dezakezu Zazpigain liburudenda: liburuak, fotokopiak, karpetak...

**BAZKIDEEK
BAKARRIK IZANGO
DUTE JOKU BARRI
HONETAN PARTE
HARTZEKO AUKERA**

▼ Hamabostero galdera bera egingo da eta hurrengo hamabostaldian ezagutuko dugu irabazlea.

▼ Erantzun guztiek ARETXAGAZETAREN bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datoren eguna baino lehen..




▼ Aurreko zenbakiko erantzuna:

Xabier Lazpiur

▼ Aurreko lehiaketaren irabazlea, M^a Begoña Aranzeta. Bazkide -zenbakia: 145.

Zein da argazkian ageri den atxabaltarra?




Erantzuna:

Izen-abizenak:

Helbidea:

Tfnoa:



Izena: Itziar Garate Begiristain
Ofizioa: Jauregi okindegikoa
Afizioa: Mendia
Misioa: Lana ondo egiten saiatu

1.- Ogi integrala ala zuria?

- Zuria.

2.- Atxabaltarrok ogi asko jaten dugu?

- Ez, gero eta gutxiago gainera.

3.- Zein da zuen espezialitatea?

- Ogi frantziarra da gure espezialitatea.

4.- Uda ala negua?

- Uda, askoz ere alaiagoa da eta norbera ere alaiago egoten da.

5.- Non igaroko zenituzke oporrak?

- Euskal Herriko mendi eta hondartzetan

6.- Zer da Atxabaltan fal-

tan botatzen duzuna?

- Pizina bat, kanpoko pizina, eguraldi ona egiten duenean bertara joateko.

7.- Pertsonengan ze kalitate baloratzen duzu?

- Umiltasuna. Dena dela, gaur egun ia ez dago umiltasunik.

8.- Zure birtute bat?

- Irekia izatea.

9.- Akats bat?

- Jenio txarra.

10.- Kolore gustokoena?

- Larua.

11.- 200 miloi pta tokatu ezker, zer egingo zenuke?

- Bidaiatu, Nepaetik bidaia bat egingo nuke.

12.- Zelan ikusten duzu gaur

egungo gazteria?

- Ondo, Atxabaltako gazteria nahiko jatorra dela uste dut.

13.- Zelan ikusten dituzu jubilatua?

- Basotxorekin eta egiten dituzten ibilaldiekin denbora non pasatu badutela uste dut. Beraz, ondo ikusten ditut.

14.- Erosketak egiteko denda haundiak ala txikiak?

- Txikiak gehiago gustatzen zaizkit.

15.- Zergatik etortzen dira hain gustora okindegi honetara ume guztiak?

- Ogiz egindako barkilotxuak eta paloteak ematen dizkiegulako, horregatik uste dut izango dela.



LASAGABASTER

ZURE KONFIANTZAZKO DENDA

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

17

EGUAKOTXA

• Gaueko 10etan, **Aretxabaletako Akordeoi orkestraren kontzertua Parrokian.**

• Arratsaldeko 7etan, **Zaraia zineman "Bolibia" diapositiba emanaldia**, Zaraia Mendi Taldeak antolatuta.

18

ZAPATUA

• **Euskeraren eguna**, Lora-mendi Kultur Elkarteak antolatuta. (Ikus egitarau berezia).

19

DOMEKA

• Murrukixo Mendizale Elkartearen urteera: **Aretxaba-**

leta - Mugarriluze - Aumategi - Andarto - Aretxabaleta.

• Zikloturisten urteera: **Aretxabaleta - Landa - Legutiano - Ollerias - Gopegi - Zarate - Murgia - Ametzaga - Altube Mendatea - Murgia - Gopegi - Legutiano - Landa - Aretxabaleta.** (100 Km)

• Zaraia Mendi Taldearen urteera: **Urkulu - Donibane.**

• Eguerdiko 12etan **Bandaren Kontzertua.**

23

EGUENA

• **San Juan Bezpera** (ikus egitarau berezia).

24

EGUAKOTXA

• Murrukixo Mendi Elkartearen urteera: **Hiru Handietara.**

29

DOMEKA

• Murrukixo Mendizale Elkartearen urteera: **Mendiak garbitzera.**

• Zikloturisten urteera: **Aretxabaleta - Urbina - Gasteiz - Gasteizko iguera - Uzkiario - Trebiño - Puebla de Argarzon - Billodas - Mendoza - Hiper Eroski - Gamarra - Urbina - Landa - Aretxabaleta.** (117 Km)

ARETXAZOKA

Lana

✓ Zure aulkia hondatu bazu, lasai egon, guk gogortu eta kordelezko ipurdi berria jarriko diogu eta. Deitu 79 15 96ra.

✓ OHOKo eta 1. eta 2. mailako. Goi Batxilergo klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 45 97.

✓ Edozein motatako lanak garbira pasetan ditut ordenagailuz. Interesatuak deitu 79 77 59 telefonora.

Lana

✓ Edozein motatako lan, txosten, agiri eta abar ordenagailuz pasatzen dugu. Interesatuak deitu 79 12 49 zenbakira eta Agurtzanez galdetu.

✓ Irakasle tituladunak klase partikularrak ematen ditu O.H.Oko 1go mailatik 8. mailararte.

Tfnoa: 77 10 72

Salerosketak

✓ Fiesta 1.6 Diesel-a salgai. Matrikula SS-X. 325.000 pta. Tfnoa: 79 12 53. Jose Felix.

✓ FORD ESCORTa salgai. Matrikula SS-U. Tfnoa: 79 63 16. Luis.

✓ MINI-CONVER karabana salgai. Egoera onean. Tfnoa: 79 88 83.



UDA IKASTAROA 94

**EUSKALDUNTZE, ALFABETATZE eta EGA
EKAINAREN 27tik UZTAILAREN 22ra**

BULEGO ORDUTEGIA:

**Goizez 9etatik 12,30etara
Arratsaldez 3etatik 7etara**

MATRIKULALDIA:

**Ekainaren 6tik 22ra
PREZIOA: 6.100 pzta
16 urtetik gorakoentzat**

Informazio zehatzagoa:
Durana, 11 (Aretxabaleta)
Fernando Enparantza (Eskoriatza)

☎ 79 21 68



IRAKASLE ESKOLA

Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:

1994-95 ikasurterako aurreinskripzio epea zabalik dagoela.

Ikastetxe honek, Euskal Herriko Unibertsitateak onartu dizkion Espezialitateetatik, honako hauek ezartzeko eskabidea egin du 1994-1995 ikasturteari begira:

- Haur hezkuntza
- Atzerriko Hizkuntza: Inglesa
- Hezkuntza musikala

INFORMAZIOA: IRAKASLE ESKOLA. Tel.: 943/71 41 57
20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)